

Bertutea

Bertutea aztura edo disposizio baten aktibitatea da, gaitasun edo joeran dagoena eta potentzialtasunarekin lotzen dena. Bertutea ez da azken ongia; eta bizimodu onena ez da bertutearen araberakoa, bertutearen ekintzarik onenaren araberakoa baizik.

Bertute dianoetiko

Funtzio arrazionalari dagokie bertute hauek. Arimaren atal arrazionalaren ekintza zuzena martxan jartzen dute. Bertute dianoetikoaren generoa aztura da eta espezia egia.

Bi multzotan banatzen dira funtzioaren arabera: batetik, kalkulatzailerak (poietiko-praktikoa) eta bestetik, zientifikoa (kontenplatio edo teorikoa).

Kalkulatzailerak eta poietiko-praktikoa: objektu kontingentei dagokie. Funtzio kalkulatzailerak zientzia praktikoei dagokie; rol administratiboa, giza ongiak sailkatzen dituzte eta legeak sortu. Ongia edo gaizkia izan daiteke, nahimen zuzenaren bidez zerbait onartu edo baztertu daiteke.

- Zientzia poietikoetan ez halabeharrezkotasuna eta aldakortasuna da nagusi. Ekoizpena hartuko da kontutan, eta artefaktu guztiak ekoizten dira, baita artelanak ere. Helburua ez da ekoiztutako produktua bera, baizik eta ekoiztutako produktu horrek betetzen duen funtzioa hobetzea.
- Zientzia praktikoen giza-praxia aztertzen da, norbera edo hiriaren arabera erregulatu daitekeena. Aldagarria den ekintza edo jardura oro kokatzen da bertan. Helburu giza-praxia aztertu ostean, hobetzea da.

Artea/teknea: arimaren atal arrazionalaren aztura zeinak pertsona bat aktibo eta modu fidagarrian paratzen duen mota batetako ondasunak sortzeko egiazkoa den arrazoiketaren bidez.

Zuhurtzia/phronesis: arimaren atal arrazionalaren aztura zeinak pertsona bat aktibo eta modu fidagarrian paratzen duen ekintzan egia lortzera, azken finean gizakiarentzat onak edo txarrak diren ekintzetan.

Zientifikoa eta behatzailea: beharrezkoak diren objektuei dagokie. Kontenplazioa du oinarri eta aldagaitzak eta halabeharrezkoak diren gauzak kontenplatzen ditu. Helburu bakarra ezagutza eskuratzea da. Bertan kokatzen direnak egiazko edo faltsu izan daitezke.

Zientzia/episteme: arimaren atal arrazionalaren aztura zeinak pertsona bat aktibo eta modu fidagarrian paratzen duen egia hartzera proba demostratiboen erabileraren bidez. Printzipioetatik abiatuz gauzak silogismoen (dedukzioen) bidez azaltzen ditu.

Adimena/nous: arimaren atal arrazionalaren aztura zeinak pertsona bat aktibo eta modu fidagarrian paratzen duen zientziaren adar baten printzipioak bilatzera edo ezagutzera demostrazioak egin gabe.

Jakituria/sophia: arimaren atal arrazionalaren aztura zeinak pertsona bat aktibo eta modu fidagarrian paratzen duen adimenean eta zientzian baina naturaz diren gauzekiko. Zientziarik gorena, lehen printzipioa.

Bi multzoen artean sailkapena edo hierarkizazioa egingo du, baita bi talde horien barnean ere. Batetik, zuhurtzia artea baino bikainagoa da. Bestetik, jakituria adimena eta zientzia baino bikainagoa da. Zuhurtzia (kausa eraginkorra) eta jakituria (kausa finala)-ren artean jakituria da bikainagoa. Zuhurtzia bertute arkitektonikoak ekintzak mailakatzen ditu eta jakituria sustatu dezake. Jakituriak modu absolutuan bikainak diren gauzak aztertzen ditu, zuhurtzia, aldiz, espeziearen araberako da.